



Oinarri teknologikoko enpresak eta/edo enpresa berritzaileak sortzeko prozesuan laguntza emateko programa. IV. ERANSKINA (BARNETEKIN).

Urtea: 2021 | Ekonomia Sustapena

Deskribapena

Ekintzailtza korporatiboaren bidez, Gipuzkoako enpresa-sarea dibertsifikatzen lagunduko duten enpresa-proiektu berrietan laguntzea, haren izaera eraldatzailean eta balio erantsi handian oinarrituta, eta arreta berezia jarrita EAeko RIS-3 estrategiarekin lerrokatuta daudenetan (lehentasun estrategikoak, aukera-eremuak eta zeharkako ekimen traktoreak [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/despliegue_pcti_euskadi/eu_def/adjuntos/ZTBP_Euskadi_2030_Oinarriak_dokumentua .pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/despliegue_pcti_euskadi/eu_def/adjuntos/ZTBP_Euskadi_2030_Oinarriak_dokumentua.pdf)) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoan sustatutako sektore estrategikoetan (<https://www.gipuzkoairekia.eus/documents/85515/1676827/Plan+Estrategikoa+2020-2023.pdf/55e78f5d-26a5-49a3-9c1b-bf25ea116418>).

Erakunde onuradunak

Onuradunak izango dira: Gipuzkoan helbide soziala eta fiskala edo egoitza duten pertsona juridikoak, eta oinarri teknologikoko enpresa proiektu bat edo enpresa berritzaile bat sortzeko ideia dutenak Gipuzkoan martxan jartzeko.

Dirulaguntzen xedeko jarduerak

Oinarri teknologikoko enpresa edo enpresa berritzailearen ideia sortu, enpresa plana prestatu eta abian jartzeko prozesuan pertsonari edo ekipu bultzatzaileari laguntza ematea.

BIC GIPUZKOAK (Bic Gipuzkoa Berrilan eta Saiolan) babestuko dituen enpresa ekimenak.

Diruz lagundu daitezkeen kostuak

Diruz lagunduko diren kostuak ondorengoak izango dira:

- Pertsona edo talde sustatzailearen dedikazioa (600 euro/hilabete gehienez).
- Enpresa esparruan edo proiektuaren araberako berariazko esparruan gaitasunak eskuratzea.
- Kanpo aholkularitza eta laguntza teknikoaren gastuak.
- Prospekzio azterlanak eta dokumentazioa.



- Azoketara joatea, bidaiatzea eta abar.
- Maketa eta prototipoak egitea.

Dirulaguntzen zenbatekoak

Dirulaguntza, kostu hautagarrien % 100 artekoa izango da, enpresa proiektu bakoitzeko 40.000€-ko gehienezko mugarekin.

Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedura lehiakortasunik gabekoa izango da, aurrekontua agortu arte.

Dirulaguntzen bateragarritasuna edo bateraezintasuna

Dirulaguntzak hauek ez dira bateragarri izango Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu bererako ematen dituen beste laguntza batzuekin. Aldiz, bateragarri izango dira Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzeko ez bada eta eragotzi gabe gai horren inguruan beste laguntza batzuen araudiak esaten duena.

Oinarri hauen arabera diruz lagundutako proiektua garatzeko dirulaguntza bat eskatzen edo lortzen duen entitate onuradunak horren berri eman beharko dio Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Departamentuari.

Betetzeko epeak

- Eskakerak aurkezteko epea: **2021eko urriaren 18a, eguerdiko 12:00etan** bukatuko da.
- Jarduerak hasteko epea: Jarduerak hasteko epea: **2021eko urtarrilaren 1etik** aurrera hasiko dira.
- Proiektuen exekuzio data: **2022eko urriaren 14an**.

Araudi aplikagarria

Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programa.

IV ERANSKINA: Oinarri teknologikoko enpresak edo enpresa berritzaileak sortzeko prozesuan laguntza emateko dirulaguntzen oinarri bereziak.

[2021eko maiatzaren 04an Diputatuen Kontseiluak onartu zituen «Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko diru laguntzen programa»ko aldatutako oinarri arautzaileak eta 2021eko deialdia \(GAO 85 zk. 2021-05-10\)](#)

[2020ko uztailaren 7an Diputatuen Kontseiluak onartu zituen «Enpresak sortu eta garatzeko](#)



prozesuan laguntzeko dirulaguntzen programa»ko aldatutako oinarri arautzaileak (GAO 130 zk. 2020-07-10)

«Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programa»ren oinarri aldaketa (GAO 74 zk. 2018-04-18)

«Enpresak sortu eta garatzeko prozesuan laguntzeko programa»ren oinarri arautzaileak (GAO 127 zk. 2017-07-04)

Eskaera egiteko urratsak

- Informazioa eta dokumentuak:
<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzailetasuna/barnetekin>
- Dirulaguntzak kudeatzeko aplikatiboa.
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

Edozein zalantza izanez gero, kontsultatu:

EKONOMIA SUSTAPENeko zerbitzua

Telefonoak:

- Kudeaketa teknikoa: 943 – 112287
- Kudeaketa administratiboa: 943 – 112218

sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus